

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PRUEBA COMÚN

PRUEBA 2017



EUSKARA

PRUEBA

SOLUCIONARIO



Argibideak

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa.

Irakurri honako testu hau eta erantzun testuaren ostean datozen galderei.



- 1 SOS Klasismoa!, oihukatu dut lau haizetara, eta lau haizeak gorraizearekin daudenez, nire haizera hemen idaztea hautu onena dela deritzot. Zera esateko: arrazakeria baino gehiago, klasismoa dagoela mundu zikin honetan; eta kontuz, ez pentsa edozein azal zuri naizenik hori pentsatzeko.
- 5 Euskal Herrian beltzarana izatea egokitu zait Hamaika Kolore sortu baino lehen. Haurra nintzela nire herriko eskolan azal ilunagoko lau ume ginela oroitzen dut; gainontzeko hiru horiek sendia ziren, gainera. Orain eskolatik pasaz gero antzeman daiteke nola aldatu den jendartea, zer nolako jauzia eman duen sagar konpotatik mazedoniara.
- 10 Umetan berealdikoak entzundakoa naiz, *puto moro* eta antzeko zerrenda luze bat. Nerabezarotik aurrera ere izan ditut esperientzia gazi batzuk; tartean Donostian, fruta denda baten alboan lagun baten zain nengoela, XXI. mendeko fruta lapurreta handiena egiteko aukeraren esperoan nengoela egotzi zidan andre batek. Izena duena ba omen da; beraz, arrazakeria bada.
- 15 Frantzia bertan, etorkin askoren bilobak ez dira *liberte*, *egalite* eta *fraternite* sisteman ondo integratu; ezta nahi ere, pentsatuko dute batzuek. Jendeak portaera ezberdinak har ditzake norbaitekiko arrazaren arabera, baina, nire iritziz, sustraia beste nonbait dago; duela urte gutxi Frantzia osoan 10.000 kotxe erre zituzten gazteak ez ziren etorkinak, ez ziren zuriak, eta ez ziren
- 20 dirudunak. (...)
Arrazakeria baldintzatzen duten faktore nagusiak klasea eta erosteko ahalmena dira, ez arraza bera. Ez zaie gaizki begiratzen atzerritar batzuei atzerritar izateagatik, baizik eta bere jatorria aintzat hartuta, klase sozial baxuago batekoak direla pentsatzen delako.(...)
- 25 Klean arropa saltzen duena eta Beyonce beltzak dira.
Umeak eskolara eramaten dituen emakumea eta Joaquin Cortes dantzaria ijitoak dira. (...)
Furgoneta batean lanean ari den gaztea eta Omaneko hamaika petrolio putzuren jabea arabiarrek dira.
- 30 Baina ez da berdina; onartu dezagun, ez da berdina. Futbol jokalaria

hegoamerikarrak askoren heroiak dira; aldiz, festetan trapuak saltzen dituztenentzat orotariko izenak daude: *matxu pitxu*, *sudaka*, *payoponi*... Baserritik bizi zena eta enpresaria jatorri berdinekoak izan arren, jendarteak lehena gutxietsi du bigarren profilari gorazarre eginez.(...)

35 Beharbada, edozeinek suge baten herena ikusten duen tokian, ni herensuge bat ikusten ari naiz. Baina ez zait iruditzen, aldamenekoa arriskutsua dela pentsatzen hezi baikara; eta beltzarana bada, gehiago.

40 Ondorioz, arrazakeria eta klasismoa behin eta berriro gurutzatu eta besarkatuko dira, konponbidea aurkitu arte. Arrazakeriarik gabeko jendarteak klase gabeko jendartea izan behar du derrigor, edo ez da izango.

Zu Zeu
 Beñat Hach Embarek (moldatua)

GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak (igorlea, hartzailea, testu-tipoa, testu-generoa, hizkuntza-erregistroa, helburua, hizkuntza-ezaugarriak.....) deskribatu eta arrazoitu erantzuna. (1,5 puntu)

2. Testuaren arabera, egiazkoak (E) ala gezurrezkoak (G) dira baieztapen hauek? Markatu erantzun egokia gurutze batez. (1 puntu).

Zuzendu gezurrezkoak diren esaldiak edo esan zergatik diren okerrak. (2 puntu)

	E	G
1. Idazleak askotan aldarrikatu du bere iritzia, baina alferrik izan da; horregatik ari da idazten.		
2. Txikitan baino ez zuen arrazakeria sufritu idazleak.		
3. Emakume batek esan zuen denda batean lapurtu zuela.		
4. Frantzian kotxeak erre zituztenak gizarteak baztertuak ziren.		
5. Beste arraza bateko dirudunekin ere arrazistak gara.		
6. Euskal Herrian, euskaldunen artean ere arrazakeria dago.		

7. Pobrezia eta klase sozial baxuak dira arrazakeriaren eragile.		
8. Mesfidati hezi gaituzte eta horrek dauka gure jokabidearen errua.		
9. Gizarteak beste kolore bateko jendearen kontrako jarrera nabaria du, are gehiago pobrea bada.		
10. Berak bizi izandako une txarrak salatu nahi dituen SOS Klasismoa erakundeko etorkin batek idatzi du testua.		

3.- Zein da testuaren ideia nagusia? Azpimarratu erantzun zuzena. (0,5 puntu)

- A. Gizartearen arrazakeria klasismoan dago oinarrituta
- B. Gizarte arrazistak dira nagusi munduan.
- C. Pobrezia baztertu egin behar dugu.
- D. Denok gara arrazistak.

4. Zer helburu du testuak? Azpimarratu erantzun zuzena. (0,5 puntu)

- A. Idazleak bizi izan duen bazterkeria kontatzea.
- B. Arrazakeria kasuak deskribatzea.
- C. Gizartean gertatzen diren injustiziak salatzea.
- D. Bere iritzia ematea arrazakeriaren kausari buruz.

5. Egizu testuaren laburpena (gehienez, sei-zazpi lerro). (1,5 puntu)

6. Zer adierazi nahi du idazleak honako esapide hauekin? Azaldu zeure hitzekin. (2 puntu)

6.1. Lau haizeak gorraizearekin daude (1. lerroan)

6.2. (...) jendartea, zer nolako jauzia eman duen sagar konpotatik mazedoniara. (8. lerroan)

6.3. Izena duena ba omen da. (15. lerroan)

6.4. Edozeinek suge baten herena ikusten duen tokian, ni herensuge bat ikusten ari naiz. (35. lerroan)

7. Bilatu testuan (33. lerrotik 40.era) definizio hauei dagozkien hitzak: (0,5 puntu)

Definizioa	Hitza
(ad.) Norbaiti edo zerbaiti duen balioa baino txikiagoa eman.	
(adb.) Zerbait gerta daitekeelako ustea adierazteko erabiltzen den hitza.	
(iz.) Euskal mitologian, suge-itxuraz agertzen den munstroa.	
(iz.) Norbait ohoratzeko edo goraipatzeko ekintza.	
(iz.) Publikoa, mundua; leku irekian dagoen jende-multzo handia.	

8. Eman testuko hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (0,5 puntu)

Hitza	Sinonimoa edo baliokidea
hautu (2. lerroan)	
berealdikoak (10. lerroan)	
egotzi (14. lerroan)	
sustraia (18. lerroan)	
hamaika (29. lerroan)	



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2017ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2017

EUSKARA

EBAZPENA EUSKARA (2017ko maiatza)

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak (igorlea, hartzailea, testu-tipoa, testu-generoa, helburua...) deskribatu eta arrazoitu erantzuna. (1,5 puntu)

Erabilera eremuari dagokionez, gizarte-komunikabideetako testua da; egunkari edo aldizkari batean argitaratutako argudio testua, hain zuzen ere. Testu-generoari dagokionez, berriz, iritzi-artikulua da. Narrazio txatalak ere baditu, baina argudioei indarra emateko baliatzen ditu idazleak. Tesia hasieran ageri da eta berriz ere amaieran. Hala, idazleak ideia nagusi bera irmo eta zorrotz adierazten du eta bitarteko paragrafoetan, frogatu nahi duena erakusteko adibideak jartzen ditu. Orain arte entzun ez badiote ere, berriz ere aldarrikatu nahi du tesian argi adierazten duena: gizarteak duen arrazakeria klasismoan oinarrituta dagoela.

Ez dago zuzenduta irakurlego espezifiko bati, baizik eta publiko orokorrari. Hala, idazleak hizkuntza estandarra darabil, edozein irakurlek erraz uler ditzakeen hitzak eta esapideak darabiltza, helburu nagusia publiko orokorrari iristea baita, gaiari buruz duen ikuspuntua argi uzteko. Testu subjektiboa da, eta, horrenbestez, lehen pertsona darabil eta iritzia, ustea adierazten duten esapide ugari (*deritzot, pentsatzen dut, nire iritziz, ez zait iruditzen...*). Aipagarria da 'gu' pertsonaren erabilera, irakurleak inplikatzeko eta iritzia orokortzeko (*.... onartu dezagun, "hezi baikara"....*). Horrez gain, hartzaileari ere egiten dio aipamen, harengan eragin nahirik (*ez pentsa edozein azal zuri naizenik...*).

2. Testuaren arabera, egiazkoak (E) ala gezurrezkoak (G) dira baieztapen hauek? Markatu erantzun egokia gurutze batez. (1 puntu).

Zuzendu gezurrezkoak diren esaldiak edo esan zergatik diren okerrak. (2 puntu)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2017ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2017

EUSKARA

	E	G
1. Idazleak askotan aldarrikatu du bere iritzia, baina alferrik izan da; horregatik ari da idazten.	x	
2. Txikitan baino ez zuen arrazakeria sufritu idazleak.		x
3. Emakume batek esan zuen denda batean lapurtu zuela.		x
4. Frantzian kotxeak erre zituztenak gizarteak baztertuak ziren.	x	
5. Beste arraza bateko dirudunekin ere arrazistak gara.		x
6. Euskal Herrian, euskaldunen artean ere arrazakeria dago.	x	
7. Pobrezia eta klase sozial baxuak dira arrazakeriaren eragile.	x	
8. Mesfidati hezi gaituzte eta horrek dauka gure jokabidearen errua.	x	
9. Gizarteak beste kolore bateko jendearen kontrako jarrera nabaria du, are gehiago pobrea bada.	x	
10. Berak bizi izandako une txarrak salatu nahi dituen SOS <i>Klasismoa</i> erakundeko etorkin batek idatzi du testua.		x

Okerrak: 2, 3, 5, eta 10

2. Nerabezarotik aurrera ere arrazakeria sufritutakoa da idazlea (11. *lerroan*)

3. Emakumeak uste izan zuen lapurreta egingo zuela, beste arraza batekoa baitzen eta horixe leporatu zion, baina mutila dendaren ondoan zegoen lagun baten zain, besterik ez. (12. *lerrotik 15.era*).

5. Adibide asko ematen ditu kontrakoa frogatzeko. Dirudunen aurrean beste modu batera jokatzeko dugu.

10. Baieztapen hori ez da egiazkoa bi arrazoiengatik: alde batetik, testuaren helburua ez da berak bizi izandakoa salatzea, eta horrez gain, testuak ez du aipatzen erakunde hori. Ez da existitzen.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45
URTETIK GORAKOAK

2017ko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2017

EUSKARA

3.- Zein da testuaren ideia nagusia? (0,5 puntu)

- A. Gizartearen arrazakeria klasismoan dago oinarrituta
- B. Gizarte arrazistak dira nagusi munduan.
- C. Pobrezia baztertu egin behar dugu.
- D. Denok gara arrazistak.

4. Zer helburu du testuak? (0,5 puntu)

- A. Idazleak bizi izan duen bazterkeria kontatzea.
- B. Arrazakeria kasuak deskribatzea.
- C. Gizartean gertatzen diren injustiziak salatzea.
- D. Bere iritzia ematea arrazakeriaren kausari buruz.

5. Egizu testuaren laburpena (gehienez, sei-zazpi lerro). (1,5 puntu)

Arrazakeria sufritutakoa da idazlea eta bere ustez, arazo horren azpian eta harekin erabat gurutzaturik, klasismoa dago. Klaseen arteko aldeak, eta pobrezia nagusiki, eramaten gaitu gu bezalakoak ez direnak eta pertsona txiroak mesprezatzera. Denok ez gara berdinak; izan ere, diruak bereizten gaitu. Ez dira berdinak kalean eskean dabilen beltza eta abeslari ospetsua. Beraz, dirua eta boterea suntsitu eta apurtu behar ditugu gizarte orekatua eta berdintasunean eraikia lortuko badugu.

6. Zer adierazi nahi du idazleak honako esapide hauekin? Azaldu zeure hitzekin. (2 puntu)

6.1. Lau haizeak gorraizearekin daude (1. lerroan)

- Bere iritzia zabaldu ditu noranahi baina inork ez dio entzun; izan ere, entzungor egiten diote, lau norabideek, lau haizeek, gorraizea dute, gorreriak jota daude.

6.2. (...) jendartea, zer nolako jauzia eman duen sagar konpotatik mazedoniara. (8. lerroan)

- Gaur egun, gizartea gero eta globalagoa da, kolore gehiago eta jende gehiago, arraza desberdinekoak ditu eta denek mazedonia eratzen dute. Mazedoniak fruta asko ditu. Konpota, ordea, hemengoa dugu, ohikoa, fruta ezagunak eta gutxi batzuk dituena. Hemengo gizartea, jendartea, ezaguna izatetik, hau da, sagar konpota, mazedonia izatera pasa da.

6.3. *Izena duena ba omen da (15. lerroan)*

- Gizakiak objekturen bat, ideiaren bat izendatzeko hitzik asmatu badu, nahiz eta ez ikusi, horrek esan nahi du badela, existitzen dela...

6.4. *Edozeinek suge baten herena ikusten duen tokian, ni herensuge bat ikusten ari naiz (35. lerroan)*

- Jendeak, batzuetan, arazoei ez die behar besteko garrantzirik ematen. Jendeak txikieria bat ikusten duen tokian, hau da, suge baten herena, berak arazoa bere benetako neurrian ikusten du, hau da, herensugea: buru erraldoia eta ikaragarritzko indarra duen munstroa ikusten du. Hitz joko polita egiten du: sugearen herena vs herensugea.

7. Bilatu testuan (33. lerrotik 40.era) definizio hauei dagozkien hitzak (0,5 puntu)

Definizioa	Hitza
(ad.) Norbaiti edo zerbaiti duen balioa baino txikiagoa eman.	gutxietsi
(adb.) Zerbait gerta daitekeelako ustea adierazteko erabiltzen den hitza.	omen
(iz.) Euskal mitologian, suge-itxuraz agertzen den munstroa.	herensugea
(iz.) Norbait ohoratzeko edo goraiatzeko ekintza.	gorazarrea
(iz.) Publikoa, mundua; leku irekian dagoen jende-multzo handia.	jendartea

8. Eman testuko hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (0,5 puntu)

Hitza	Sinonimoa
hautu (2. lerroan)	aukera, hautaketa
berealdikoak (10. lerroan)	berebizikoak, markatik kanpokoak, egundokoak
egotzi (14. lerroan)	leporatu, errua bota, aurpegira bota
sustraia (18. lerroan)	erroa, oinarria, zimendua; jatorria, iturburua
hamaika (29. lerroan)	asko, pilo bat